

ZER DERITZOZU?

DENBORA: 4 eskola-ordu

IKAS-JARDUERAK

1 ZURE BIZITZAKO EGUN BAT

Helburuak: Gizonen eta emakumeen artean etxeko zereginak banatzean dagoen ekitate-falta aitortzea. Bereizkeria kontzeptua argitu eta gaia-rekin lotzea.

Deskripzioa: Testua irakurri ondoren, lehen hiru koadroak bakarka beteko dira. Azkeneko bi galderak denen artean landuko dira ikasgelan.

Orientabideak: Gogoeta kolektiborako sarrera gisa, testuko zatirik harrigarrienak zein diren galdetuz has daiteke. Hirugarren koadroko emaitzak arbelean idatziko dira, hiru zutabetan banatuta: 1.a) etxeko zereginak batez ere gizonek egiten dituzten familiak; 2.a) etxeko zereginak batez ere emakumeek egiten dituzten familiak; 3.a) etxeko zereginak emakumeen eta gizonen artean ekitatiboki banatzen diren familiak. Emaitzak konparatu ondoren, azkeneko galderak landuko dira.

Emakumeek etxearen baitan jasaten duten bereizkeria identifikatzeaz gain, etxeko zereginak zenbat eta zenbat lan-ordu eskatzen duten nabarmendu behar da. Era berean, etxeko kide guztien arteko "ardura konpartituaren" inguruko ezatabaida piztu behar da.

2 ZER DERITZOZU?

Helburua: Iragarkiek eragiten duten emakumeen bereizkeria identifikatzea.

Deskripzioa: Azaleko iragarkien mezuari erreparatuz, eztabaida piztuko da ikasgelan, ondoko galderak egin eta jarduerak abiatuz: Zer produktu eskaintzen du eta nori begira egin dago iragarkia? Zer iradokitzen dizute mezu publizitario hauek? Egin ezazu zerrenda bat iradokizun horiek idatziz. Nolakoak dira irudietako emakumeak? Deskriba itzazu. Laburbil ezazu esaera bakar batean iragarki bakoitzak transmititu nahi duen mezua. Emakumearenganako bereizkeria adierazten al du publizitateak? Zergatik?

Beste era batera ere lan egin daiteke: iragarkiak talde txikietan landuz eta, gero, denen artean emaitzak konpartituz.

Orientabideak: Hitzen zerrendak idatzi eta iragarkietan agertzen diren emakumeak deskribatu ondoren, bi zerrendak alderatu behar dira: nola saltzen du mezuak, produktuaren "kualitateak" aipatuz ala emakumeen irudiak azalduz? Ondoren, iragarkien mezuak denon artean aurkitzen saiatuko da, mezuak kontsumoari begira eginak daudela adieraziz: "apurtu ezazu errutina", "bete itzazu zure nahiak", "izan zaitez luxuzko opari". Jardueraren helburua da publizitateak, produktua saltzeko, askotan emakumeari ematen dion balioa argitzea: desio, plazer, jostaketa, entretenimendurako, "objektu" izatea, alegia. Ariketa hau osatzeko, eta publizitateak emakumeari ematen dion beste balio batzuk argitzeko xedez, telebistan agertzen diren garbiketa-produktuei buruzko iragarkiak landu daitezke.

3 GUATEMALA-KO ISTORIO BAT

Helburua: Hegoko herrialde bateko adibide zehatz bat hartuz, emakumearen bereizkeria nola gertatzen den identifikatzea.

Deskripzioa: Komikia irakurri ondoren, galdera batzuk eta jarduera batzuk proposatzen dira, denen artean erantzun eta burutzeko. Ikasleek zerrenda bana egingo dute "Los Limones" izeneko komunitean gizonek eta emakumeek egiten dituzten zereginak bilduz, eta ondoko galderei erantzun egitea: Zure iritziz, nola banatzen dira zereginak komunitate horretan? Ba al dago diferentziarik emakumeek eta gizonek egiten dituzten zereginen artean? Inportanteak al dira diferentzia horiek? Zergatik?

Jardueraren bigarren zatia rol-joko bat da, talde txikietan edo talde osoan egin daitekeena. Talde bakoitzari denbora emango zaio argudio batzuk eskaini eta argudio horiek aztertu eta berriak proposatzeko. Galdera bakoitzari emandako erantzuna azalduz hasiko da eztabaida, eta irakasleak egoki ikusten duenean amaituko da. Ondorio orokor modura, komikia beste modu batez amaitzea proposatuko da.

Orientabideak: Galderak: Emakumeak Hegoan duten egoerari buruzko eztabaida sortu behar da. Etxeko zereginak berez zailak badira, zer esanik ez ura, argia, etxeko tresna elektrikoak etab. ez daudenean. Iparreko emakumeei gertatzen zaien bezala. Hegoko emakume askok etxetik kanpo ere lan egiten dute (komikian, adibidez, sorotan lan egiten dute uzta biltzeko garai gogorrenean), eta, gainera, etxeko zereginak ez ezik haurrak zaintzen dituzte. Era berean, etxetik kanpo lan egiten duten emakume askori ez zaizkie beren eskubide laboralak aitortzen. Lehen urrats gisa, garrantzi handia du ikasleek komikiaren arabera gizonek egiten duten lana —eskolara joan eta bileretan parte hartu— identifikatzea. Gai horiek rol-jokoan landuko dira gehiago.

Rol-jokoa: Argi utzi behar da hasiera-hasieratik, gizonez eta emakumez osatutako bi taldeei buruz ari garela, eta ez "gizonak emakumeen kontra". Komenigarria da galderak egitea, ikasleek gogoeta errazago egin dezaten. Eztabaida bitartean, arbelean jasoko dira emaitzei begira garrantzizkoak diren ideiak. Emakumeek jasan dezaketen mota askotako bereizkeriak jasoko dira. Landutako adibidean, emakumeen egoera bakarrik hobetu da, putzuak denbora eta lana errazten duelako, baina, komunitatean duten lekua ez da aldatu. Hau da: a) emakumeek egiten dituzte lanik

gehienak, eta b) gizonen hartzen dituzte erabakiak. Ardurak ez dira banatu gizonen eta emakumeen artean. Elementu positibo modura, hauxe azalduko da: emakumeak euren artean antolatzea garrantzizkoa da aldaketak abiatzeko.

Ideia batzuk...

| A TALDEA (BAI) | B TALDEA (EZ) |
|--|---|
| <p>Komunitateko gizon eta emakume batzuk zarete. Ados zaude ur-putzua jartzearekin:</p> <ul style="list-style-type: none">- Putzuak emakumeen denbora eta lana errazten du.- Neskek denbora gehiago badute, agian gurasoek eskolara bidaliko dituzte.- Denek ados ez dauden arren, komunitatearen erabakiak agintarietara dagozkie. Emakume gehienek ez dute asanblean parte hartzen, eta agintarien artean ez dago emakumerik.- Zure herriaren ohituren arabera, gizonen zein emakumeen ardurak handiak dituzte komunitatean: gizonen soroetan lan egin eta arazo komunei buruzko erabakiak hartzen dituzte; emakumeek, berriz, etxeko zereginak egiteaz gain, haurrak zaintzen dituzte. | <p>Argudio berriak pentsatu. Komunitateko gizon eta emakumeak zarete. Ez zaude ados ur-putzua jartzearekin.</p> <ul style="list-style-type: none">- Emakumeek gizonen baino lan-ordu gehiago egiten dituzte: etxean, soroan, etab.- Komunitateko agintariak ez diete emakumei galdetzen, gaiak inori baino gehiago emakumei eragin arren.- Emakumeek ez dute batzarretan parte hartzen, eta agintariak ez dira: senar batzuek nahi ez dutelako, haurrak zaindu behar dituztelako, dehorarik ez daukatelako, irakurtzen eta idazten ez dakitelako.- Egia da etxeko zereginak garrantzitsuak direla, horregatik partikatu behar dira gizonen eta emakumeen artean.- Argudio berriak pentsatu. |

4 IPARREAN ETA HEGOAN BEREIZIAK

Helburuak: emakumeek jasaten duen bereizkeriari buruzko ideia nagusi batzuk laburbiltzea. Bi sexuentzako aukera-berdintasunaren eta ekitatearen alde jartzea.

Deskripzioa: Antzezpen bat egingo dugu: neskek eta mutilek, Emakumearen Bereizkeria kentzeko Baztordeko kideak direnez, salaketa-txostena idatziko dute.

Orientabideak: "Bereizkeriari buruzko datu batzuk" izeneko atalean emandako datuetan oinarrituz, ikasleek hainbat motatako bereizkeriak identifikatu behar dituzte. Ondoren, aholku edo gomendio batzuk formulatuko dira, kasuan kasukoak, gobernu, familia, sindikatu, emakumeen erakundeei, eta abarri bidaltzeko. Aurkitutako kasuak komentatu eta gomendio-zerrenda bat egingo da denen artean. Azken laburpen gisara, edo zein motatako bereizkeria kentzeko gizon eta emakumeen arteko ardurak konpartitua bultzatu behar da.

GLOSATEGIA

EKINTZA POSITBOA

Talde bati zuzendutako neurriak, zeinen arabera bereizkeria kendu eta jarrera, portaera eta egituretatik datozen desabantailen eragina gutxitu nahi den.

GENERO-ANALISIA


Gizonei eta emakumei tradizionalki esleitu zaizkien rola direla-eta gizonen eta emakumeen artean sortutako diferentzien azterketa: baldintza, premia, parte-hartzearen indize, baliabide eta garapenerako sarrera, aktiboen kontrol, erabakiak hartzeko gaitasunari eta abarri dagokienez.

TREBAKUNTZA (erabakiak hartzeko prozesuan osoki parte hartzeko)

Norberaren bizitza eta komunitatearena ekonomia, gizarte eta politikari dagokien gaietan parte hartu eta aldatu ahal izateko ahalmen pertsonalak lantzeko baliabideak eduki eta garatzeko prozesua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ZER DERITZOKU?





ZURE BIZITZAKO EGUN BAT

Atzo, 7etan jo zuen nire gurasoen iratzargailuak. Azkar altxatu ziren biak. Aitak guztientzako gosaria prestatu zuen bitartean, amak ikuzgailuan jarri zuen arropa.

Julio nebari eta niri gehixeago kostatu zitzaigun jaikitzea, baina ordu erdi baten buruan dutxatuta eta jantzita geunden biok. Ohituta gaudenez, hamabost minututan egin genituen gure oheak eta jaso genuen logela. Gosaldu ondoren, nebak platerak garbitu zituen, eta nik sukaldea jaso nuen. 8:30etan denok prest geunden irteteko. Gu eskolan utzi ondoren, gurasoak lanera abiatu ziren. Ama ingeniari kimikoa da, eta aita eskolaurreko maisua. Amak diru gehiago irabazten duen arren, gustukoa dute egiten dutena. Bazkaltzeko orduan, nebak eta biok aiton-

amonen etxera joan ginen. Aitonak gehien gustatzen zaidan janaria prestatu zuen: tortila-patata eta makarroiak! Bazkal ondoren, amonak autoz eraman gintuen eskolara, berandu samar egin baitzitzaigun.

Arratsaldean, etxerakoan, nebak eta biok etxeko lanak egin eta gero, jolasean aritu ginen ordenadorean. Bitartean, gurasoek etxeko zereginetan jarraitzen zuten: aitak arropa-pila lisatu zuen, eta amak bart hondatu zen argi bat konpontzen jardun zuen.

Oso nekatuta ikusi genituenez, Juliok eta biok afaria prestatu genien, sorpresaz. Oso-oso ondo atera ez zitzaigun arren, gurasoak poz-pez jarri ziren.

Izena: Elena García · DBHko 1. B

Osa ezazu azpiko taula Elenaren familiako kide bakoitzak egiten duen lana jasoz. Ondoren, gauza bera egin zure familian gertatzen denarekin.

Elenaren familia

| amak | aitak | Elenak | Juliok | amonak | aitonak |
|------|-------|--------|--------|--------|---------|
| | | | | | |

Gure familia

| | | Nik | | | |
|--|--|-----|--|--|--|
| | | | | | |

Seinala itzazu bi taulen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak

| Elenaren familian etxeko zereginak batez ere honako hauek egiten dituzte: | Gure familian etxeko zereginak batez ere honako hauek egiten dituzte: |
|---|---|
| | |

Justua iruditzen al zaizu Elenaren familian egindako banaketa? Eta zurean egiten dena?

Ba al zenekien

Espainiako emakumeek gizonazkoek baino zazpi aldiz gehiago egiten dutela lan etxean?
(PNUD: Informe sobre desarrollo humano 1999. Bartzelona, 1999)

Bila ezazu hiztegian "bereizkeria" hitza. Zure ustez, Estatu espainiarreko familietan, emakumeak bereizkeria jasaten al du? Eman arrazoiak.



Komunitatean ur-putzu berria eraiki aurretik, emakumeak egunean bi aldiz joaten ziren ur bila, eta ordu eta erdi behar izaten zuten bidaia bakoitza egiteko. Orain denbora eta indarra irabaz ditzakete emakumeek. Baina, komunitatean, denak ez daude pozik erabakiarekin. Zuk ere har dezakezu parte "Los Limones" izeneko komunitatean sortu den eztabaidan.

Zure ustez, erabaki justua al da emakumeentzat ur-putzu berria eraikiztea?



IPARREAN ETA HEGOAN, BEREIZIAK

Gizonek munduan egindako lanaren %75 lan ordaindua da. Aldiz, emakumeek egindako lanaren %34 bakarrik da lan ordaindua. Gainera, emakumeek soldata dutenean, gizonena baino txikiagoa izan ohi da. (Sutcliffe, Bob: *100 imágenes de un mundo desigual*, Intermón Oxfam, Bartzelona, 1998.)

Milaka neska bizi dira Marokon neskametzan, egunean 12-16 ordu lan eginez, egun librerik eta oporrik gabe. Familiakoek kobratzen duten soldata 10-22 eurokoa izan ohi da hilean. Ikasketarik ez dute eta, aldiz, tratu txarrak jasaten dituzte. (AMD Press: 20 Buletina, 2002-2-19. Grupo Tecnipublicaciones.)

Etxekoandreek egunean 9 ordu lan egiten dute, batez beste (etxe barruan eta kanpoan lan egiten duten emakumeak kontuan hartuz); gainera, ez da lana eteten asteburuetan, oporretan edo jubilazioagatik. (Durán, M. A.: *La jornada interminable*, Icaria, Bartzelona, 1986.)

Munduan eskolara joaten ez diren 125 milioi haur daude. Bi herenak neskak dira. (Arias, Marta: *Educación ahora, rompamos el círculo de la pobreza*, Intermón Oxfam, Bartzelona, 1999.)


Neska gazte espainiarrek goi-ikasketak behar izaten dituzte lan-promozioa izateko eta kualifikazio-maila hori ez daukaten mutilen status berbera erdiesteko. (AMD Press: 220 Buletina. 2002-2-19. Grupo Tecnipublicaciones.)

Guatemalako makiladora eta fabrika handi askok haurdun ez izatea eskatzen diete emakumeei, lana emateko. Gainera, asko kaleratu egiten dituzte haurdun geratzen badira. (AMD Press: 216 Buletina. 2002-2-13. Grupo Tecnipublicaciones.)

Emakume europar bakoitzetik batek indarkeria jasan behar izan du etxean. (AMD Press: 219 Buletina. 2002-2-18. Grupo Tecnipublicaciones.)

Emakumen partaidetza gobernuko karguetan eta politikan gizonena baino askoz ere txikiagoa da. (Iturria: PND 199 txostenetik hartuta)

Emakumeek gobernuan duten partaidetza, eskualdeka (%)



KEN DEZAGUN BEREIZKERIA!

Luzea da bidea, baina gutxika-gutxika irabazten ari dira emakumeen eskubideak. Alabaina, Iparrean zein Hegoan, oraindik handia da bereizkeria.

Emakumeen eskubideak babestuta daude: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta hainbat konbentziok, batik bat emakumeen kontrako edozein motatako bereizkeria kentzeko Konbentzioak, eta gainera: gure jarrereri esker, bereizkeria hau kendu nahi dugun gizon eta emakumeek.

BEREIZKERIA: salaketa-txostena

Nazio Batuetan lan egiten duzu, eta Emakumearen aurkako Bereizkeria Kentzeko Batzordekoa zara. Salaketa-txostena egitea eskatu dizute. Gorago dauzkazun datuetan, bila ezazu bereizkeria-adibide bat kasu bakoitzeko. Gero gomendio bat idatzi, salatutako kasuetan bereizkeria kentzeko balio dezan, eta argitu nori zuzentzen diozun.



Emakumearen aurkako Bereizkeria Kentzeko Batzordea

S a l a k e t a - t x o s t e n a

Bereizkeria etxean

| |
|------------|
| 1. kasua: |
| Lekua: |
| Gomendioa: |

Bereizkeria hezkuntzan

| |
|------------|
| 2. kasua: |
| Lekua: |
| Gomendioa: |

Bereizkeria lanean

| |
|------------|
| 3. kasua: |
| Lekua: |
| Gomendioa: |

Bereizkeria politikan

| |
|------------|
| 4. kasua: |
| Lekua: |
| Gomendioa: |